

EUSKAL UNIBERTSITATEAREN SUSTAPEN BATZORDEA

Euskal Unibertsitatea

AKADEMIKOA EGINEZ

U E U

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

© Udako Euskal Unibertsitatea
Erribera k. 14 C-D 48005 Bilbo (Egoitza Soziala)
Tf. 94 6790546 • E-posta: gestioa-idazkaritza@ueu.org

Sarrera

Euskal Unibertsitatea aldarria izan dugu urte luzetan. Dagoeneko gizartearen sektore zabalak bere egin du unibertsitate berriaren beharra. Aldarria izatetik gogoeta gaia izatera igaro da. Galdera asko dago erantzuteke. Guztiak bakar batera ekarri beharko bagenu honela adieraziko genuke, zer da Euskal Unibertsitatea? Guztiz eta borobil erantzuterik ez dago. Ez daukagu, behintzat. Hala ere, zenbait alderditan Euskal Unibertsitatearen izanaz eta izaeraz oinarri-oinarrizko ezaugarriak azalerazten saiatuko gara. Ezaugarri horietan, gure ustez, adostasun zabala beharrezkoa da Euskal Unibertsitatearen proiektua bideragarria izan dadin.

Euskaldunen unibertsitate eleanitza.

Euskararen hizkuntza komunitatea eratzeko eta garatzeko erakundea.

Gizarte-parte hartzekoa, herriaren zerbitzura eta demokratikoa.

Euskal Herriaren eraketa politiko sozialerako lagungarria.

Europako unibertsitate esparruan homologagarria.

1. Euskaldunen unibertsitate eleanitza
2. Euskararen hizkuntza komunitatea eratzeko eta garatzeko erakundea.
3. Gizarte-parte hartzekoa, herriaren zerbitzura eta demokratikoa.
4. Euskal Herriaren eraketa politiko sozialerako lagungarria.
5. Europako unibertsitate esparruan homologagarria

Ezaugarri horiek banan-banan aztertu behar ditugu eta adostu. Proiektu akademikoaren oinarriak dira eta. Hortik hasiko gara, bada, Euskal Unibertsitatearen proiektu akademikoaren mataza harilkatzen. Hasteko goian zerrendatutakoei buruzko azalpen laburrak, baina argigarriak, azalduko ditugu, hurrenez hurren.

Euskaldunen unibertsitate eleanitza

Hizkuntzen auzitan askotan *euskarazko unibertsitatea*, *unibertsitate elebakarra*, *euskara hutsezko unibertsitatea* eta antzeko esamoldeak erabili izan dira Euskal Unibertsitatearen hizkuntza izaera definitzeko. Okerrak eta nahasiak, gure ustez. Dударik ez daukagu Euskal Unibertsitateak euskaldunek sortua, euskaldunek gobernatua eta gestionatua eta euskaldunentzako unibertsitatea izan behar duela. Are zehatzago, Euskal Unibertsitatea **euskara berezko hizkuntza** izango duen unibertsitatea izango da. Harago, ordea, unibertsitatea den heinean, Euskal Unibertsitateak ezin uko diezaioke munduko gainontzeko hizkuntzak erabiltzeari jarduera akademikoetan edo ikerkuntzan, esaterako.

Duda bakoa da, ostera, Euskal Unibertsitateko irakasleria, ikasleria eta zerbitzu eta administrazio langileria euskaldunak izan behar direla. Hau da, Euskal Unibertsitateko komunitateak, halaber, komunitate euskalduna izan behar du. Horrela, Euskal Unibertsitateko estatutuetan eta barne araudietan ezaugarri hori jaso behar du eta arautu behar ditu hizkuntzen erabilera bere baitan. Edozelan ere, euskara eta unibertsitarioren hobe beharrez ezin izan daiteke hertsia eta murriztailea, irekia eta malgua baino.

Euskararen hizkuntza komunitatea eratze eta garatzeko erakundea.

Aurrekoari lotzen zaio estu-estuan. Hori izan behar da, gure ustez, Euskal Unibertsitatearen behineneko eginkizuna. Euskal Unibertsitatearen iparra nolabait esatearren. Neurri batean, bederen, Euskal Unibertsitateak euskalgintzako erakundea izan behar du. Euskalgintzako gainontzeko erakunde, instituzio eta elkarteekin orpoz orpo lankidetzan jardun behar duena. Euskararen normalkuntza eta hedakuntzarako konpromisoa goren mailaraino eraman behar duen erakundea.

Hori horrela, Euskal Unibertsitatearen jarduera orokorrean bat egin behar du euskararen hizkuntza komunitatea eratzen eta garatzen ari direnekin. Alderdi horretan erakunde aitzindaria izan behar du. Euskaldunentzako bilgunea izatetik harago, euskararen lurraldeen kohesiorako tresna eta euskararen beraren garapenerako akuilua.

Gizarte-parte hartzekoa, herriaren zerbitzura eta demokratikoa.

Euskal Unibertsitateak sorrerako unetik bertatik —lehendik ere—, herriaren zerbitzurako erakundearen izaera jagon behar du. Euskal Unibertsitatearen aldarria herritik bertatik sortua da, Euskal Herriaren sektore zabal baten aspaldidaniko eskakizuna da. Aldarrikapenetatik aurrera, berriz, Euskal Unibertsitateak izaera horri eutsi behar dio. Hau da, Euskal Unibertsitatearen **gizarte-parte hartzeko** izaerak unibertsitatearen ateak ireki behar die herriari eta herriaren erakundetze lanetan dihardutenei.

Horrek berez badakar ekarri Euskal Unibertsitateak **erakunde demokratikoa** izan behar duela. Unibertsitatea osatzen duten irakasleria, ikasleria eta langileria irizpide demokratikoen arauetara bilduko dira. Unibertsitatearen estatutuetan eta barne araudietan zehatz-mehatz arautuko dira kolektibo desberdinen eskubideak gobernu eta erabaki guneetan parekidetasuna lortze aldera. Arreta berezia jarri behar da emakumeen eskubideak eta parte hartzea lortzeko, sexismoari uko eginez.

Eraketan eta gestioan irakasleriak berez dituen erantzukizunak ezin izan daitezke oztopo ikasleriaren esku hartzeko. Ikasleriaren parte hartze ahalik eta zabalena bilatuko da beraz. Horrek ez du kendu behar kolektibo bakoitzak izan behar duen autonomia antolatu eta jarduteko garaian.

Euskal Herriaren eraketa politiko sozialerako lagungarria.

Tamalez, Euskal Herriaren erakundetze prozesuan ez dago herri osoaren erakunde bakar batek Euskal Unibertsitatearen izaera publikoa berma dezakeenik. Alderdi honetan Euskal Unibertsitateak Euskal Herriaren erakundetze prozesu horretan lagundu behar du. Parte hartze zuzena izan behar du sortu diren edo sor daitezkeen eremu nazionaleko erakundeetan. Halaber, Euskal Unibertsitateak sustatu behar du Euskal Herriaren erakundetze nazionala eta, hala iritziko balio, Euskal Herriko lurraldeetan indarrean dauden erakunde eta instituzioetan parte hartu.

Esanak esan, Euskal Unibertsitateak eragile aktiboa izan behar du Euskal Herriaren erakundetze nazionalean, ekarpenak egin, eztabaidak sustatu eta prozesuan ari diren gainontzeko eragileekin lankidetzan jardun. Hori guztia islatu beharra dago Euskal Unibertsitatearen antolakuntza ereduan. Aurrenik eta behin, hezkuntza alorrean nazioko

Kaltegarria da Euskal Unibertsitatea Euskal Herriko gainontzeko unibertsitateekin kontrajartzea, kaltegarria eta antzua.

Munduan ez da unibertsitate elebidun eredu iraunkorrik.

Edozein hiztunek bere formazio beharrak ase ditzake edozein unibertsitatean, edozein hizkuntzatan.

Munduan ez dago hizkuntza eta kultura garaturik unibertsitate propiorik ez duenik.

hezkuntza sistemaren alde diharduten erakunde, instituzio, elkarte eta mugimenduekin. Eragile horiekin harreman berezi eta estuak izan behar ditu eta Euskal Unibertsitatearen eraketa eta garapenean esku hartzeko moduak bilatu.

Europako unibertsitate esparruan unibertsitate homologagarria

Euskaldunok unibertsitate *normala* behar dugu. Hori begien bistakoa da. Baina ez da itxuraz bezain erraza. Euskal Unibertsitatea ez da unibertsitate *berezia* izan behar. Europako beste edozein unibertsitatearen antzekoa izan behar du. Egia da, Europan zehar unibertsitate mota eta eredu desberdinak badirela izan. Gehien jota, gure behar eta iritzien arabera, horien arteko bat izan behar du. Ezin izan liteke unibertsitate *isolatua*. Ez dugu beste unibertsitatearen kopia sortu behar, jakina. Baina alferrikakoa izango litzateke Europako unibertsitate esparruan ezin jardun dezakeen unibertsitatea sortzea.

Hori horrela, Europako unibertsitate izaera hori lortzeko, Euskal Unibertsitateak bere eraketa eta antolakuntzan zenbait ezaugarri izan beharko ditu. Batzuk alor juridiko administratiboari dagozkio. Horiek beste txosten bati dagokio. Alderdi akademikoari dagokionez, ostera, sortzeaz dagoen unibertsitate eremu europarrak ezarritako oinarritzko irizpideei lotu behar gintzaizkiekeen. Oraindino oso gutxi garatuta dago esparru hori. Aukerak baditugu eduki prozesu horretan bete-betean murgiltzeko eta Euskal Unibertsitate berria esparru horretan lehiatzeko modukoa egiteko.

Horrek, besteak beste, irizpide horiei lotzen behartzen gaitu. Euskal Unibertsitatearen antolakuntza akademikoaren ereduak, beraz, Europa begira diseinatu beharra dago.

Euskal Unibertsitateerako proiektu akademikoa

Aipatu bost atal nagusi horietan adostasuna lortuz gero, Euskal Unibertsitatearen proiektua akademikoa hezurmamitzen has gintezke. Kontua ez da, soilik, titulazioak hautatzea. Korapilotsuagoa da. Lehen aipatu bost atal nagusi horien argitan unibertsitatearen ereduaz hitz egin behar dugu. Iradokizun gisa zerbait gehiago aurrera dezakegu Euskal Unibertsitatearen ezaugarriez.

- ✓ Unibertsitate zabala: jakintza alor guztiak jorratzeko asmoz sorturiko unibertsitatea. Euskal Unibertsitatea ez da sortuko unibertsitate *espezializatua* izateko. Ez da izango *euskararen* unibertsitatea, ez giza edo gizarte zientzietakoa ezta ere politeknikoa. Hasierako urteetan, esan beharrik ez dago, euskararen hizkuntza garapenerako titulazio eta ikasketei lehentasuna eman behar zaie.
 - ✓ Unibertsitate osoa: unibertsitate mailako hezkuntza ziklo eta titulazio guztiak lantzen dituen. Lehengo ziklotik hirugarreneraino, diplomaturak, lizentziaturak doktorego programetaraino.
 - ✓ Irakaskuntza eta ikerkuntza: Euskal Unibertsitateak ikergunea izan behar du, uztartu behar ditu irakaskuntza eta ikerkuntza.
-

- ✓ Kultura eta hedakuntza unibertsitarioa: euskal kulturaren ondarea jaso eta garatzeko, kultur askotariko erakusleioa izateko. Era berean, unibertsitateak sortu, bildu eta lantzen duena herrira helaraztek programak lantzen dituena.
- ✓ Pedagogia eredu aurrerakoa eta berritzailea: katedra askatasuna, teknologia berrien sustatzailea, ikuspegi kritikoak jaso eta sustatzea eta jakiturien ekarpenak modu zabalean eta aurreiritzirik gabe hartzen dituena.

Euskal Unibertsitatearen proiektua akademikoa egiterakoan, adituen ekarpenez gainera aldarri honen alde dihardutenen parte hartzea ezinbestekoa dela uste dugu. Dokumentu honetan adierazitakoak abiaburu izateko balio dezakete. Aurrera begira, berriz, Euskal Unibertsitatearen alde dihardutenekin lan egin behar izango dugu.

Edozelan ere, gaur egungo Euskal Herriko titulazio mapa zein nolakoa den eta dauzkagun unibertsitatean nolakoak diren aztertzea beharrezkoa dela uste dugu.

Eibar, 2004ko urria.

Euskal Unibertsitatearen Sustapen Batzordea.
